


## KLUB NAUTIKOA A MAILA

## IJENTEA 09



Egilea eta data: Jose Manuel Aizpurua eta Joaquin Labayen; 1929

### Deskribapena

Proiektua klub nautiko zaharraren zabalkuntza gisa planteatu zen. Haren lehen zirriborroak 1928ko azarokoak dira eta 1929ko abuztuan eraikitzen bukatu zuten. Egungo eraikinak dagoen terrazaren harlangaitz horma zaharrak aprobeztatu zituen, haren zabalerari eutsiz eta luzera hogeita bat metro zabalduz. Mareetatik babesteko bao txikiak egin zituzten eta eraikina altueren hazi zen. Oin nagusia hormigoiz eraiki zuten horma horien gainean, klubaren berezko erabilerarako (hau da, aretoak eta terrazak), bai eta beste goi oin bat ere jabetxe publikorako. Oin nagusia pasealekuaren gainetik metro batera altxatuta geratzen da. Pasealekutik, albotik ere, brankan hegal erdizirkular handi batez errematatuta dagoen hurrengo mailara sar daiteke. Klub Nautikoa, gaur egun, garai hartan "arkitektura berria" izenekoaren adibide muturrenetakoa da, ondorengo eraberritze lan desegokien arabera. Arkitektura horrek onzi arkitekturan zuen erreferentziarik garrantzitsuenetakoa. Eraikinaren kokapena (kai ondoan ainguratutako yate gisa) hobezina zen arkitektura arrazionalista proposatzeko; besteak beste, honako ezaugarri hauekin: horizontaltasuna, terrazetako mailakatzea, leiho jarraitua, baranden eta eskaileren forma arinak, hegalak, forma zirkularrak, etab. Onzi arkitekturarekiko antzekotasunak, era berean, egungo udaletxearekiko estilo eta eskala erlazioa ebatzi zuten, 1923an Kasino Handia itxi ondoren. Barrutik, eraikinak jatorrizko dekorazioaren zati bat du oraindik aretoetan eta tabernan. Kutsu dotorea du, material onen, zuraren, larruaren eta altzairuaren konbinazio neurritsuari esker. Bestalde, jatorrizko altzari batzuen falta igarri da, bai eta fatxadaren beste elementu batzuen; adibidez: diseinu arrazionalistekin lotura handiagoa zuten leiho birakariak.

### Babes erregimena

- \* Erregimen orokorra:  
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- \* Berriazko erregimena:  
Kultura ondasun gisa, monumentu kategoriaz, kalifikatu izanaren ondoriozkoa, abenduaren 26ko 288/2000 Dekretuaren bidez (16. EHAA, 2001-01-23koa).
- \* Eragindako ingurunea: adierazitako dekretuak mugatutakoa. Dekretu horretan, mugaketa literario hutsa da eta, hain zuzen, horregatik, erantsita doan grafikoa jasotakoa mugaketa horren hurbilketa bat da eta gutxi gorabeherakoa da.